


2007an jakinarazi diren lan-istripuetako ia erdiak 16 eta 35 urte bitarteko langileei gertatu zaizkie

Langile gazteen kolektiboan 2007an lan-istripu gehien nozitu dituztenak mutilak eta helduenak izan dira (26 eta 35 urte bitartekoak). Kasuen % 99,4an lesioak arinak izan dira.

Gazteen Euskal Behatokiaren Euskadiko Gazteak bildumaren azkeneko txostenean (*Euskadiko gazteak 2004*) gazteek beren lanaren arrisku-mailari buruz duten iritzia biltzen da, inkesta egiteko momentuan edo lehenago lanean zebiltzan gazteen iritzia, hain zuzen ere. Emaitzek aditzera ematen dutenez, % 47k uste dute beren lana ez dela arriskutsua, % 37k ez dela oso arriskutsua eta % 15ek nahiko edo oso arriskutsua dela. Horrenbestez, langile gazteen kolektiboak, oro har, ez du arriskurik ikusten bere laneko egitekoetan.

OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak jasotako datuen arabera, 2007an 48.735 lan-istripu jakinarazi ziren EAEn. Zenbateko horretatik % 46,8 16 eta 35 urte bitarteko gazteei zegozkien. Gazteek sufritutako istripu kopurua handia den arren, *Euskadiko gazteak 2004* txostenean bildutako iritzietan gazteek adierazten dute beren lanpostuek ez dutela arriskurik.

Datu hauek 2001ekoekin alderatuz gero, 16 eta 35 urte bitarteko gazteek pairatu dituzten istripuen kopuruak % 6 egin du behera. Azkeneko sei urteotan lan-istripuek beheranzko joera izan dute, 2005ean gora egin bazuten ere, langile guztien kopuruak bezalaxe.




Iturria: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

2007an jakinarazi ziren lan-istripuetatik, % 80,0 16 eta 35 urte bitarteko mutilek sufritu zituzten eta neskek % 20,1 baino ez. *Euskadiko gazteak 2004* txostenean lanpostuaren arrisku-mailari buruz emandako erantzunak aztertuta, neska gutxik uste dute, oro har, beren lana arriskutsua dela; mutilek hein handiagoan diote hori (% 8k eta % 23k, hurrenez hurren).

Adin-taldeen araberako azterketak aditzera ematen duenez, 16 eta 35 urte bitarteko gazteek 2007an sufritutako istripu guztietatik, % 68,7 26 eta 35 urte bitarteko gazteenak dira, % 24,0 21 eta 25 urte bitartekoak eta % 7,2 16 eta 20 urte bitartekoak.

**16 eta 35 urte bitarteko gazteen lan-istripuak, adin-taldeen arabera.
Portzentajeak. EAE. 2007**



Iturria: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Jarduera-sektoreei dagokienez, 16 eta 35 urte bitarteko lan-istripu gehienak zerbitzuen era industriaren sektorean egon dira (% 41,1 eta % 39,1, hurrenez hurren). Gazteen lan-istripu gutxiago jakinarazi dira eraikuntzaren sektorean (% 18,4) eta, azkenik, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren sektorean (% 1,4).

Datuok 2001ekoekin konparatuta, zerbitzuen sektorea izan da 16 eta 35 urte bitarteko langileen lan-istripuetan igoerarik handiena nozitu duena (% 3ko igoera). Eraikuntzaren sektorean, aldiz, istripuek % 3 egin dute behera. Industriaren eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren sektoreetako istripuen ratioek maila berean jarraitu dute.

16 eta 35 urte bitarteko zaurituen **lesio-mailaren** aldetik, 2007ko ia guztiak arinak izan dira (% 99,4). Lesioetako % 0,1 baino ez da hilgarria izan.

* Lan-istripuei buruz ematen diren datuak aginte legal eskumendunari jakinarazitakoak dira.

Erlazionatutako datuen kontsulta:

Euskadiko gazteen lan-istripuei buruzko adierazle estatistikoak
Euskadiko gazteak 2004 azterlana.

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema